

LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

1.- Egitasmoaren izenburua:

Makinak konpontzeko tailer mugikorra

2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2020

3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- ☐ II. Kap.: Ekintzailetzarako laguntzak.
- ☒ III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- ☐ IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- ☐ V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- ☐ VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

4. - Proiektuaren helburua:

5.- Inbertsio totala: 8.686,37 euro

6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 2.336,66 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk: 0,00 euro

7.- Onuraduna:

Jonatan Gasteasoro Arbina

- ☐ Publikoa
- ☒ Pribatua

8.- Lankide edo entitate partehartzaileak:

9.- Inbertsio edo aktuaizioen lokalizazioa:

Langarika. Iruraiz-Gauna, Araba

10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

Jonatan Gasteasoro nekazaria da eta, aldi berean, esperientzia handiko mekanikaria denez,

nekazaritzako makinak, obra publikoan jarduteko makinak eta ibilgailu industrialak konpontzeko eta mantentzeko zerbitzuak ematen ditu, tailer mugikor baten bidez. Hala, furgoneta bat erabiliz, bezeroaren instalazioetara edo ibilgailua zein makina aztertu edo konpondu behar den lekura joaten da.

Makina batzuetan, kanpoko zerbitzu mugikorrak berebiziko garrantzia dauka ekipo ahalik eta denbora laburrenean erabilgarri egon dadin ziurtatzeko.

Unitate mugikorraren barruan, mota guztietako diagnostiko-tresnak eta -ekipoak daude, konponketan erabilitako denbora albait laburrena izan dadin. Horri esker, bezeroak berehala izango du berriro ekipoa erabiltzeko moduan, hori guztia, bezeroak joan-etorririk egin behar ez duela.

11.- Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

Proiektuak eskualdearen garapena bultzatzen lagundu du; izan ere, guztiz mugikorra den tailer batean oinarritzen da, eta **Arabako Lautadan negozio-eredu hori daukan enpresa bakarra da**.

Nekazaritzan zein ibilgailuen mekanikan aritzen denez, ekintzailea inguru horretako beharrianen jakitun dago.